



5. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko 10/89 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Ondorengo hau da zergagaia: hirigintzako obren lizentzia eskatzea beharrezkoa duen edozein eraikuntza, instalazio zein obra egitea, lizentzia hori jaso nahiz jaso ez, baldin eta lizentzia ematea udal honi badagokio.

4. ARTIKULUA

Besteak beste, ondoko hauek zergapeko egintzak dira:

- 1.- Mota guztietako eraikin edo instalazio berriak egiteko obrak.
- 2.- Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Egitura ukitzen duten aldaketak edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin eta instalazioetan.
- 4.- Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin eta instalazioetan.
- 5.- Eraikinaren barruko taxuera aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikinaren erabilera.
- 6.- Behin-behinean egin beahr diren obrak, Lurrari buruzko Legearen Testu Bateratuko 58. artikuluko 2. atalean aipatzen diren horiek.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak, besteak beste lur erauzketak, hondeaketak eta betelanak, salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehazturik eta programaturik daudenean.
- 9.- Eraikuntzak erraustea, aurri zoriko deklarazioa dutenak izan ezik.
- 10.- Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jardueretarako



instalazioak, zerbitzu publikoenak, edo lurrazpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.

11.- Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran jartzea.

12.- Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute.

5. ARTIKULUA

Ez dira zergapean egongo udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea Udala bera bada.

III. SALBUESPENAK

6. ARTIKULUA

Zerga ordaindu beharretik salbuetsita daude Estatuaren, autonomia erkidegoen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo toki erakundeen jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin uren saneamendurako izango badira; hori horrela da kudeaketa erakunde autonomiadunek egin arren, hala inbertsio berriko obrak direnean nola artapenekoak direnean.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

7. ARTIKULUA

1.- Ondorengoak dira, zergadun moduan, zergaren subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34 eta 35. artikuluetan aipatzen dituen entitateak, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe direnak, eraikuntza, instalazioa edo obrak egiten direneko higiezinaren jabe izan zein ez izan.

2.- Aurreko paragrafoaren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituen da.

3.- Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, beraren ordezkari subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenak edo hura egiten dutenak.

4.- Beti ere, pertsona edo entitate zergaduna nor den eta haren helbidea jakinarazteko eskatu ahal izango dio udal administrazioak zergadunaren ordezkari.

V. ZERGA OINARRIA

8. ARTIKULUA

1.- Zerga-oinarrria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.



Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratariaren enpresa-mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.

2. - Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio nahiz obren kasuan, udal administrazioak ezarritakoa izango da zerga-oinarria.

VI. ZERGA KUOTA

9. ARTIKULUA

Zergaren kuota kalkulatzeko, zerga-oinarriari eranskinean adierazitako karga-tasa aplikatuko zaio.

VII. SORTZAPENA

10. ARTIKULUA

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasterakoan gertatuko da, lizentzia jaso ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA

11. ARTIKULUA

Aginduzko lizentzia ematen denean behin-behineko likidazioa egingo da eta interesatuek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria baldin eta aurrekontu hori dagokion elkargo ofizial eskudunak ikus-onetsi badu; horrela ez denean, eta lizentzia jaso ez duenean, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera.

12. ARTIKULUA

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatu egiten bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriz egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizkoa zenbateraino gainditzen duen kontuan hartuta.

13. ARTIKULUA

1.- Egin egindako eraikuntza, instalazio edo obrak eta horien benetako kostua kontuan hartuta, Udal Administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ondoren, aldatu egingo du zerga-oinarria, hala behar denean. Bidezko den behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainaraziko dio edo bidezko zenbatekoa itzuliko dio, horrela badagokio.

2.- Aurreko atalean ezarritakoaren ondoretarako, obra amaitu edo obra behin-behinean jaso eta hurrengo hilabetean inguruabar horren aitortpena aurkeztuko zaio Udal Administrazioari, administrazioak berak emango duen inprimakian. Inprimakiarekin batera, obra zuzendu duen



teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren lanbide elkargoak ikus-onetsita, beharrezkoa izanez gero. Agiri horretan obren kostu osoa ziurtatuko da. Kostu osoan sartuko dira proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta obren ondorioz izan daitezkeen beste kostu batzuk.

14. ARTIKULUA

Zergaren likidazioari dagokionez, eragin bera dute administrazioaren isiltasun positiboaren bidez eman diren lizentziek zein berariaz emandakoek.

15. ARTIKULUA

Udalak autolikidazio araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

16. ARTIKULUA

Baimendutako obra, eraikuntza edo instalzioa ez burutzea erabakitzen badu lizentziaren titularrak eta idatziz horrela adierazten badu, Udalak itzuli egingo dio behin-behineko likidazioa edo, bestela, osorik deuseztatuko du.

17. ARTIKULUA

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo du, salbu eta titularrak hura berritzea eskatu eta udalak baimena ematen duenean.

IX. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Zergaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2005eko urriaren 25ean izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2006ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

**ERANSKINA****TARIFAK****KARGA-TASA**

X	Eraikuntza, instalazio eta obra arruntak	5 %
X	Babes ofizileko etxebizitzak.....	3 %
X	Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sozialak.....	2 %
X	Pertsona ezgaituen irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko eraikuntzak, instalazioak eta obrak.....	2 %
X	Garbiketa, pintaketa, egokitze, konpontze eta berrabiltze lanak, eraikin baten fatxada edo fatxadak bere osotasunean hartzen dituztenean eta fatxadaren batek herri bidera ematen badu.....	2 %
X	Eraikinari estalki berria jartzeko edo osotasunean eraberritzeko lanak egitea.....	2 %